

Jose Ignazio Ansorena

Txutxupe



Hitz benetan ederra: *Txutxupe*. Donostiako inguruetak haurrok erabiltzen genuen kaleko jolasetan inork tranpa egiten zuenean. Balio erabakiorra izaten zuen: jolaskide batek hitz hori esanda, berehala eteten zen jarduna eta iruzurra argitzen saiatzen ginen guztiok. Horregatik ere, taxuzko zantzurik gabe ez zen zilegi *Txutxupe* oihukatzea. Erantzun-kizunaren zentzua eskatzen zuen.

Egun ume gutxi ikusten da kaleetan jolasean. Gizartearen arazoetan, ordea, behar ditugu umetan jolasean ondo aritutako helduak. *Txutxupe* une egokietan eta ozen aldarrikatzen ohitu direnak. Hainbeste txarraposo txorizozale jasan behar izaten da arlo guztietan... Taxuzko zantzuak baino askoz gehiago ikusten da nonahi. *Txutxupe* hitza umeen hizkeratik gizarte osora eraman beharko genuke, zuzentasun eskearen oihu eta goiburur bihurtuta.

Laster batean kaleratuko den Txirri, Mirri eta Txiribitonon disko berriari *Txutxupe* izena jarri diogu. Hona izenburua jartzen dion abestiaren hasiera:

Iruzurraren aurrean,
Txutxupe,
ez gara egongo isilik,
Txutxupe,
gezur guztien gainetik,
Txutxupe,
Txutxupe, Txutxupe,
Txutxupe.

Azken boladan gure soziedade politikoan zer ari da gertatzen? Loiolako elkarrizketen jarraipena. ETak, hamaikagarren aldiz bere bizitzan, sekulako hankasartzea egin zuen Loiolan zuen aukera ez aprobeitzatzeagatik. Eta Batasunako ordezkariak ere bai, honi jarraitzeagatik.

Gobernuko ordezkariak konturatu dira euskal jendeak ere horrelaxe hartu duela itxaropenaren azken zapuzketa hori. Eta, kontuan hartuta ETA noraino duten zultua (hori baino gehiago ere esango nuke nik), erabaki dute (ziur aski erabakita zuten aurretik, alegia *B plana* izango zen) liskar honetan aukera paregabea dutela: bakearen



DANI BLANCO

truke prezio politikorik pagatu ez, *kobratu* baizik.

Bestela entzuten bada ere, ez dute ezker abertzalea desagertzea nahi, ezinezkoa dela baitakite. Ez dute ETak jarraitzea nahi. Nahi dute kokapen on bat lortu ETA desagertzen denerako, errenta politiko ona ateratzeko desagerpen horretatik. Eta ezker abertzalea ahulduta geratzea, bide batez abertzaletasun osoa herren utzita, jakinda bestetik hori gertatzen denean, ohiko inertzia txoroengatik, ezker abertzale horrek joera izango duela PSOErekin akordioak lotzeko EAJrekin baino lehenago. Eta, itxuraz, beren asmoak betetzeko aukera guztiak dituzte.

* * *

Agian nire irudipenak besterik ez dira. Esan izan dizuet ez dakidala ezer politikaz. Baina honela ikusten dut eta nazkagarria iruditzen zait. Betiko joko maltzurra baitago horretan: jeneralak fitxak mugitzen eta herritarrak bide bazterrean hiltzen.

Txutxupe, *Txutxupe* eta *Txutxupe*. Mila aldiz oihukatzeagatik, ez dute aditzen baina. Jakina, hortxe dago kontua. Jolasetarako egoia da *Txutxupe* hitza. Gu gobernatzen gaituztenek, aldiz, ez dakite jolasa zer den. Beti jokoan ari baitira. *Txutxupe*, *Txutxupe*, *Txutxupe*.

* * *

Nahastuta daude. Prezio politikoa kobratzen ari direla uste dute. Baina denok ordaintzen ari gara, baita beraiek ere, bizitza jolasa delako ez jokoa, amaiera jakina baitu. Francoren ondotik eskasa zen Espainiako demokrazia, gero eta eskasago bihurtzen ari da: hogeita hamar urte pasata, monarkiaren kontua ez da planteatu ere egiten, hauteskunde zerrenda irekien kontuaz ez da hitz egiten, prentsa boteretsuen mezuen transmisio bide besterik ez da... Eta Justizia? Zer da hori? *Euskaldunon Egunkari*ko lagunak hil honetan epaitu behar dituzte. *Txutxupe*, *Txutxupe*, *Txutxupe*. ■